

Lander Jimenez, Oier Mendivil, Iñaki Muguruza, Gartzzen Parrilla eta Asier Beraza

Aplikazio bat sortzeko ideia izan dugu. Honen bidez, idazleek haien liburu berriak iragarri ahal izango dituzte eta ez dute izango haien idaleak ez jakitearen arazoa. Aplikazioaren bidez, irakurleak online edo fisikoki geratu ahal izango dira liburuetaz edo gai literarioaz hitz egiteko.

Merkatuaren azterketa egin ostean, jabetu gara batzuetan irakurleak ez direla konturatzen haien idazle gogokoenek noiz argitaratzen dituzten liburuak. Hau arazo bat da bi aldeetarako, horregatik uste dugu gure aplikazioak laguntza eskertuko diela bi aldeoi. Gure lehiakide nagusia sare sozialak izango dira, hauen bidez idazleek haien lan berriak iragartzen dituzte edota saldu.

Gure aplikazioaren bidez lanak iragartzeaz eta aurkezteaz gain irakurleak liburuetaz hitz egin ahalko dute eta haien iritsiak partekatu. Hori ez ezik, idazleek haien liburuak edo audioliburuak saldu ahal izango dituzte gure aplikazioan sortuko duten profilean. Bertan euren burua aurkeztu ahalko dute, zer generotan zentratzen diren... Haien profilean denda online bat moduko txokoa egongo da, liburuak erosteko aukera emango duena.

Gure proiektuarekin dirua jasotzeko negozio aukera ezberdinak planteatu ditugu. Lehenengoa aplikazioaren alboetan iragarkiak agertzea da, edo pop-up moduko iragarkiak agertzea noizen behin, hauen bidez, iragarleek dirua ordainduko ligukete.

Beste negozio aukera bat subskripzio bat ordaintzea da, honetarako bi aukera ditugu, aplikazioa erabiltzeko subskripzioa edo beste aukera aplikazioan idazten diren artikuluak osorik irakurri ahal izateko, beztela lehenengo parte soilik irakurri ahalko da.

Hurrengo ideia egiten diren salmenten komisioa jasotzea da, honela, aplikazioaren bidez saltzen diren liburu bakoitzarekin diru kopuru bat jasoko dugu.